

**LAN BATZORDE IREKIAK****TALDEA****OBRA BATZORDEA****IRAUPENA****2 ordu****EGUNA****2016-05-04****GAIA****DEIALDIA****PARTE HARTZAILEAK**

Endika Igarzabal

Iñaki Etxezarreta

**Xabier Barriola**

Aingeru

Pili Mintegi

Iñaki Arratibel

Felix Maiz

Iñaki Oiarbide

Nikolas Igarzabal

Iñaki Maiz

**ERABAKIAK****GAIA****EKINTZAK****ARDURA  
DUNA****NOIZKO****FRONTOI AZPI**

- Azken euriteekin Merino eta Aingeruren garajera ura sartu da. Arketa altxatu zen eta ikusi zen gainezkako hodia harkaitzaren aurka utzita zegoela.
- Obra txiki bat egin da hodi hau eskoileraz beste alderaino zuzenean pasatzeko eta uraren joana errazteko. Nahiz eta arazo handia azpiagoko hodian egon, momentuko soluzioa izango delakoan gaude.

**IGERIBAR ERROTA**

- Igartubeti-Ormaiztegiko zubia-Igeribar errota hiruen arteko zirkuitu bat egin litekeela esan digu Goimenek.
- Beraiei egin zitzaien proposamen hori eta, beraien esku dago momentuan.

**IRIZAR-MAIORA**

- Udala iritsi zen akordio batera Irizarrekin, eta falta zena Irizar eta Maioraren artekoa litzateke. Akordio batera iritsi dira hitzez esan digutenez.
- Orain udala eta irizarren arteko teknikarien lana geratzen da proiektuaren zenbakien banaketa adosteko.
- Ez da normarik aldatu behar, adostasun batera iritsi direlako bi alde kritikoak. Etxe pareta libre geratuko zaie, inbernaderoaren zatia.

**NORMAK**

- Nola daude normak baserri baten lurak zatitzeko baldintzak? Zenbat metro behar dira gutxienez?
- Zenbat metro behar dira etxebizitza bat baserri lurretan egiteko?

**ARDANTZA ALDEKO  
AUZOA**

- Farea bat altxatu zen proba egiteko, ea nola geratzen zen.
- Astesantu aurretik egin zen proba eta positiboki baloratu zen denen partetik. Bizilagunekin akordio batera iritsi zen udala eta azkenean %25a ordaindu zuen, gainerakoa bizilagunek.

**ELUR PROTOKOLOA**

- Ez da ezer egin, baina egin beharreko zerbait bezala ikusten

**PENDIENTE**

	da.		
<b>INTERNET KONEXIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Orain dela gutxi deitu zaio arduradunari. Lasai hartzeko esan digute.</li> </ul>		
<b>APARKALEKUA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kurutzbakarren egitea ikusten da egokiena, baina hala ere toki deserosoa izango dela ikusten da, eta ez lukeela funtzionatuko.</li> <li>Estudio bat egingo da ze kostu eduki lezakeen jakiteko. Ez da beste toki aproposik ikusten momentuz.</li> <li>Taxi gidari lizentziaren inguruan ez da ezer jakiterik lortu. Enteratzeko geratu gara nola den kontu hori.</li> </ul>		
<b>PLAZAKO BEGIRATOKIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aurrekontua 3000€ ingurukoa da. Momentuz, dirurik ez dagoenez ez da egingo.</li> <li>Udalak zer eskumen duen ez da jakiterik lortu. Beste gai batzuetan dabilkigun abokatuari egingo zaio kontsulta.</li> </ul>		
<b>TROIAKO URTEGIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Alex Franco delako batekin bilera egin zen, EVEko teknikari bat da.</li> <li>Beraien planteamendua arazo larriena konpontzera soilik dago zuzenduta, segurtasunari begiratzen die soilik, baina ez mina eremu guztia berreskuratzen. Urmaela kendu nahi dute, eta gainerakoa ez zaie axola.</li> <li>Arazoa da jabetza pribatua dela, baina zerbait pasako balitz administrazioarena da ardura, jabetza fondorik gabe dagoelako deklaraturata.</li> <li>Proiektuaren txostena bidaltzekotan geratu zen Mutiloko udalarekin batera azertu eta beste proposamenen bat aurkezteko.</li> </ul>		
<b>HERRI BIDEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Izerdirako bidean luizia konpondu da, errepidea nahiko zintzilik geratzeko arriskua zegoelako.</li> <li>Herriko bide guztien diagnostiko bat entregatu zaio Aldundiari.</li> <li>Gabiriari 35.000€ko laguntza emango zaio gehienez (Jaurlaritzak), eta gehienez bost errepide zati konpondu ahalko dira.</li> <li>Berriro aurkeztu beharko dira lehen eskatu ziren proiektuetarako laguntzak. Balorazio berriak egingo dira, eta herri mailan definitutako irizpideak (ordenantza) aplikatuko dira obrak exekutatzekoan.</li> </ul>		
<b>HERRIKO BIDEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ehizko herri bidea konpontzeko eskaria jaso zen. Aurrekontu bat prestatu da, eta 10.000€koa da. Momentuan ez dago horri aurre egiteko dirurik. "todouno"arekin izango litzateke eta kunetak hartuz. Jabea erdia ordaintzeko prest agertu da.</li> <li>Herri bideen inguruko inbentario bat prestatzea ondo legoke. Zaila izango da zein bai eta zein ez den baina, zerbait egitea komeniko litzateke.</li> <li>Pista mailan ere, zerbait egin beharko litzateke? Nola egin? Noraino sartu?</li> <li>Pinudiak ateratzen hasi aurretik bete beharreko dokumentu bat prestatu da, jabeak bete beharko du. Udaleko teknikariek ikusiko dituzte bideak aurretik eta gero, eta abala itzuli edo ez baloratuko da. Kanona abalaz aparte izango da. Ordenantzan dago definituta guztia.</li> </ul>		
<b>ALEGIKO BIDEGORRIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ormaiztegiako eta Ezkio-Itxasoko udalekin hitz egin da eta hiru udalen artea bultzada ematekotan geratu gara.</li> </ul>		

<p><b>MINATAKO ERREPIDEA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Txosten bat egin da eta Aldundiko teknikariari eman zaio, errepide hori Mutiloa eta Gabiriarako gehiegi dela argudiatuz.</li> <li>• Momentuan esan zutena da ez dutela bere kargu egitea aurreikusten, baina ikustera etortzekoak dira eta presioa egingo da bi udalen artean.</li> </ul>		
<p><b>URKIOLA GAINEKO ZABORTEGIA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hormigoneratik gora joanda, konposta egiteko gune bat dago, adarrak eta txikitze gune bat. Ezkioko udalarekin hitzemandako zerbait da dirudienez, baina Gabiriaio lurretan dago.</li> <li>• Kontua da jendeak nahi duen guztia botatzeko aprobetxatzen duela. Udaleko teknikoekin informe bat egingo da.</li> <li>• Handik gora joanda, bertederu bat dago, teoriarik legala, lurrak botatzeko soilik eta diputazioak eta udalak baimena emanda. Errebisatu egingo da, joan den astean horrelako gauzak kontrolatzeko abisua emanez gutun bat iritsi zen udalera eta.</li> </ul>		
<p><b>BOLATOKIAREN ERABERRITZEA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Paretako murala berriro margotzeko dirulaguntza bat eskatu zen eta baiezkoa eman dute (ezer ofizialik ez oraindik, 3000€ inguru, Goimen). Bolatokia eta kanpofubol inguruko zenbait gauza erabiliko da.</li> </ul>		
<p><b>ALEGIKO BIDE GURUTZEA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zulo mordo bat dauzkate errepidera inkorporatzeko zatian. Aztertuko eta ikusiko da nola dagoen.</li> </ul>		

Hurrengo bilera: uztaila 5, 19:00tan